

KARMELE MUÑO A ARRIGAIN andreak, Bermeoko Udaleko jarduneko idazkariak,

**ZIURTATZEN DOT:**

2012ko otsailaren 6an **Tokiko Gobernu Batzarrak** erabagi hau agindu dauela:

**36.- VALORA EUOPAR EGITASMOA KUDEATZEKO ZERBITZU KONTRATUA ESLEITZEA.**

**Xedea**

VALORA europar egitasmoa kudeatzeko zerbitzu kontratua esleitzea.

**Aurrekariak**

Lehenengoa: 2011ko urriaren 24ko Tokiko Gobernu Batzarrak, VALORA europar egitasmoa kudeatzeko zerbitzu kontratua esleitzeko baldintza-agiriak onartzea eta deialdia zabaltzea erabagi eban.

Bigarrena: Deialdia 2011ko azaroaren 29ko BAOn argitaratu zan.

**Argudioak**

Lehenengoa: Deialdira DAITEKE CAREERS & JOBS SL enpresek bakarrik aurkeztu dau bere eskaintza eta, 2011ko abenduaren 27an Behargintzako Zuzendariak emondako txostenaren arabera, bere eskaintza egokia izan da. Hori horrela, kontratazino mahaiak, esleipendun legez proposau eban eta behin betiko esleipena egin ahal izateko, legeak agintzen dauen errekerimentua egin jakon.

DAITEKE CAREERS & JOBS S.L. enpresek, zehaztutako epe barruan, Errekerimentuan eskatutakoak bete dauz: kautotuta edo egiaztauta eskatutako dokumentazinoa aurkeztea eta behin betiko bermea ipintea (3.600,00 €), hain zuzen be.

Bigarrena: Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuak, zemendiaren 14ko 3/2011 Legegintzazko Errege Dekretuak, arautzen dauzan urrats guztiak jarraitu dirala kontuan hartuta, 151.3 artikulua xedatutako eran, esleipena egin daiteke.

**Erabagia**

Aurreko guztia kontuan hartuta, aho batez, honako hau erabagi dau Tokiko Gobernu Batzarrak:

LEHENENGOA: VALORA europar proiektuaren kudeaketa zerbitzuaren kontratua DAITEKE CAREERS & JOBS S.L. enpreseari esleitzea.

BIGARRENA: Kontratuaren prezioa 74.000,00 €-koa (BEZ kanpo) izango da. BEZari jagokon zenbatekoa 13.320,00,00 €-koa da (Denera: 87.320,00 €).

HIRUGARRENA: Enpresa esleipendunari jakinarazotea bost (5) laneguneko epean, esleipenaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, kontratua sinatu beharko dauela, eta horrela egin ezean udalak kontratua bertan behera itxi ahal izango dauela.

Eta honela izan daiten eta ondorio egokiak eragin daizan, alkate jaunaren aginduz eta onetsiaz, ziurtagiri hau idazten dot, eta bere xedea dan erabagia onartu barik dagoan akta batean dagoala adierazoten deusut, behin betiko onespeneren menpean dagoela ohartarazota, Bermeon, 2012ko otsailaren 10ean.

ONETSIA  
ALKATEA